

Prentsarako txostena



Babeslea:



BBK-k bere gain hartu du Guggenheim Bilbao Museoko erakusketa berri honen babesa, poz handiz gainera, 25 urte betetzen baititugu bidean lagun egiten. Denbora honetan guztian zehar, BBK-k erakundearen ibilbidea eta ekimenak babestu ditu Babesle Estrategiko gisa, eta gero eta publiko handiagoa erakarri duten museoaren proposamen, aurkikuntza, jarduera eta arrakastetan lagunduta. Arte garaikidearen garrantzian sinesten dugu, eta hark betetzen duen zeregina bultzatzen dugu ezagutza sortzeko, berrikuntzak ekartzeko, talentua garatzeko, integrazioa eta inklusioa lortzeko eta ahalegina eta talde-lana sustatzeko. Museoarekin partekatzen ditugun balioak dira guztiak, pertsonengan eta gizarteengan eragin zuzena eta emankorra izateko gaitasuna dutenak, baita garapen sozialean eta kulturean ere.

Oraingo honetan, bereziki atsegin dugu *Jean Dubuffet: ospakizun bizia* erakusketa egiten lagundu izana, artearen mugak zabaldu nahi izan zituen artista bati eskainia dagoelako. Horretarako, konbentzio ugari hautsi eta inklusiboago bihurtu nahi izan zuen artea: edertasunaren kontzeptua bera zabaldu zuen, ordura arte gutxietsiak izan ziren errealitateak integratuz; Art Brut definitu zuen eta korrante horretan sartu zituen ere artearen alorreko teknikak menderatzen ez zituzten eta ezagutza akademikorik ez zuten sortzaileak, zeinak munduaren ikusmolde bereziak, zuzenak eta “tolesgabeak” adierazteko gai izan baitziren.

Hala, Guggenheim Bilbao Museoaren eta Solomon R. Guggenheim Foundationen arteko aliantzari esker ekarri ahal izan da Bilbora Dubuffetek hainbat sorkuntza-aldiren zehar egindako ibilbide hori. Izan ere, Dubuffetek ordezkartza bikaina du New Yorkeko museoaren funtsetan, eta horietatik datoz oraingo erakusketa osatzen duten pieza gehienak, Veneziako Peggy Guggenheim Collectioneko hautaketa batekin osatuta.

Plazer handia da obra-multzo berezi hau Bilbon behatu ahal izatea, konektatu egiten baikaitu Dubuffeten espiritu askearekin eta aldarrikatu zuen arteak eskaintzen dituen aukerekin; gogogabeziaren edo etsipenaren aurkako antidoto eraginkorrak ezbairik gabe. Figurazioaren eta abstrakzioaren artean, material piktorikoak dituen ezaugarrien esplorazioaren eta pertzepzioaren eta errealitatearen inguruko ikerketa sakon eta filosofikoago baten artean, Dubuffeten obrak gorazarre egiten die aldaketari, humanismoari, itxaropenari eta umoreari. Ongi etorriak izan zaitezte *ospakizun bizi* honetara; ziur nago esperientzia pozgarria izango zaizuela.

Xabier Sagredo
BBKren Presidentea

Jean Dubuffet: ospakizun bizia

- Datak: 2022ko otsailaren 25etik abuztuaren 21era
 - Komisarioa: David Max Horowitz, Assistant Curator, Solomon R. Guggenheim Museum, New York
 - Babeslea: BBK
- Bere ibilbidean zehar, Jean Dubuffetek konbentzio kulturalak eta edertasunaren inguruan gizartean onartutako ideiak gaitzetsi zituen ikuspegi berri eta pizgarriak aztertzeke. Artistaren asmoa publikoa artea, sormena eta mundua beren zabaltasun osoan esperimenezko modu autentikoagoak eta aberasgarriagoak bilatzera bultzatzea zen.
- Dubuffetek etengabe jardun zuen arte-sorkuntzari heltzeko zuen modua berrasmatzen. Teknika eta estrategia ugari esploratu zituen konposizioaren arloan; bere irudimenean zeuden askotariko gaiak jorratu nahi zituen, eta askatasunez mugitzen zen figurazioaren eta abstrakzioaren artean.
- *L'Hourloupe* zikloarekin Dubuffetek hiztegi bat ezarri zuen, fantasiazko unibertso hedakor bat sortzeko eta esploratzeko aukera ematen ziona, adierazpide bisual bakarrean bateratua. Era berean, gai epistemologikoetan eta fenomenologikoetan sakontzeko aukera eman zion, eta horretan jardun zuen bere ibilbidearen amaierara arte.

Guggenheim Bilbao Museoa *Jean Dubuffet: ospakizun bizia* aurkezten du, BBKren babesari esker. Erakusketa honek Jean Dubuffeten ibilbidearen hamarkada erabakigarriak aztertzen ditu, 1940ko hamarkadako lehen sorkuntza-lanetatik hasita 1984an osatu zituen azkeneko sailetaraino. Erakusgai dauden lan gehienak New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museumeko funts oparoetatik etorriak dira, eta beste batzuk, aldiz, Veneziako Peggy Guggenheim Collectionetik.

Bigarren Mundu Gerraren amaieran, Jean Dubuffet (Le Havre, Frantzia, 1901–Paris, 1985) bere pinturak ikusgai jartzen hasi zen. Balio estetiko sustraituenei desafio egiten zieten lan haiek. Edertasun klasikoaren eta lotsaren printzipioak baztertuta, eta edozein trebetasun artistiko erakusteko batere asmorik gabe, Dubuffet gauza arruntetan eta ezustekoetan oinarritu zen. Hala, nonahiko materialak eta gai prosaikoak erabiltzen zituen bere obran, prestakuntza akademikoaren aztarna oro saihesten zuen estilo batez landuak. Ikuspegi horrekin, Dubuffetek aurre egin zien arauari, bere iritziz benetako adierazpena zaildu eta eguneroko esperientzia gutxien baitzuten. Hala ere, artistaren helburua ez zen soilik agerian jartzea zeinen zaharkituta zeuden konbentzio kulturalak: arauen menpe egon behar ez izateak ematen duen bizitasuna ere erakutsi nahi zuen. Honela esan zuen behin Dubuffetek: “Jendeak nire lana balio erdeinatuak indarberritzeko ahalegin gisa hartzea nahi nuke, eta [...], ez gaizki ulertu, ospakizun bizi-bizi gisa”.

Bere ibilbide osoan zehar Dubuffet zeharo konprometituta egon zen helburu horrekin, nahiz eta, sarritan, erabiltzen zituen formak aldatu helburu hori lortzeko. Baliabide desberdinak probatzen zituen, besteak beste, pintura, marrazkia, collagea, litografia, eskultura eta performancea, eta aise mugitzen zen figurazioaren eta abstrakzioaren artean, konposizioaren arloan askotariko estrategiak esploratuz, eta bere paleta maiz berrasmatuz. Aldaketa horien guztien bitartez, Dubuffeten lana sustraituta mantendu zen publikoarekin ikuspegi berriak eta pizgarriak partekatzeko zeukan nahi bizi horretan, eta konbentzioen gaitzespenean. *Jean Dubuffet: ospakizun bizia* ospatzeko bultzada horretan oinarritzen da, Dubuffeten sorkuntza-lan zabalaren panoramika bat eskainita.

Batik bat New Yorkeko Guggenheim Museoaren bildumako obren bidez artistaren ibilbide osoa aurkezteko aukera hau erakunde horrek Dubuffetekin izan zuen harreman estuari zor zaio. Museoak hiru erakusketa handi eskaini zizkion bere bizitzan zehar: *Jean Dubuffet 1962–66* (1966), *Jean Dubuffet: A Retrospective* (1973) eta *Jean Dubuffet: A Retrospective Glance at Eighty* (1981), eta bere obraren bilduma adierazgarri bat ere eratu zuen, 1959an eskuratutako *Atea askiarekin (Porte au chiendent, 1957)* pinturatik hasita.

Jean Dubuffet Frantziako Le Havre hirian jaio zen 1901ean. 17 urterekin hasi zituen arte-ikasketak Académie Julian ospetsuan. Dena den, bertako ikasketa-plana mundu errealeko arazoetatik hain urrun zegoela ikusita, desengainua hartu eta utzi egin zuen eskola. Ondorengo urteetan Parisko komunitate artistikoarekin harremanetan jarraitu zuen, besteak beste Raoul Dufy, Juan Gris, Fernand Léger, André Masson eta Suzanne Valadon artistekin. 1923an Clémentine Ripoché artista espiritistaren lana ikusteko aukera izan zuen, eta hurrengo urtean Dr. Hanz Prinzhornen *Gaixo mentalen artea III* liburua deskubritu zuen. Aurkikuntza haiei esker, Dubuffetek miarresmen sakona eta iraunkorra garatu zuen espiritistek, haurrek eta gaixotasun mentalak erasandako pertsonen sortutako artearekiko; berak aurrerago “Art Brut” izena eman zion arte-mota horri.

1920ko eta 1930eko hamarkadetan zehar bere familiak zuen ardo-banaketako negozioan lan egin zuen Dubuffetek. Baina, 1942an, 41 urte zituela, naziek okupatua zuten Parisen bizi zela, artean jardutea erabaki zuen. Ondorengo urteetan egin zuen lana desafio zuzen bat izan zen edertasunaren inguruan eskuarki hedatutako ideialei, trebetasun teknikoari eta artearen estatus goratuari; horren erakusgarri ditugu *Miss Choléra* eta *Botere-nahia (Volonté de Puissance)*, biak 1946ko urtarrilean eginak. Dubuffetek argitalpenekin eta hitzaldiekin osatu ohi zuen bere sorkuntza artistikoa. Bere iritzia azaltzen zuen haietan, hau da, kultura konbentzionalaren mekanismoak hiltzorian zeudela, itogarriak zirela eta baztertu egin behar zirela.

Bere izaera kritiko nabarmenarekin batera, Dubuffetek bide alternatiboekin esperimentatzen zuen, adierazpide jator eta emankorragoetara bideratuko zutela sinetsita. 1940ko eta 1950eko hamarkadetan edertasunaren kontzeptua birpentsatzera gonbidatu zuen publikoa, eta gauza arruntak zeinen miarresgarriak izan daitezkeen erakutsi zuen. Bere garai hartako lanak egunerokotasunaren eta material xumeenen ezaugarrietan jartzen zuen arreta. Bere pinturaren izaera fisikoa nabarmentzeko gehigarriak erabiltzen zituen —karea, zementua eta harea, besteak beste— eta horiekin loditzen zuen olio-pintura, berak “haute pâte” deitzen zuen enpaste bihurtzeraino. Baliabide horrekin, Dubuffetek testura eta konplexutasun handiko gainazalak sor zitzaizkeen, baita forma

fisikodun konposizioak formulatu ere. Zenbaitetan, aurrerapauso bat gehiago eman eta objektu aurkituak txertatzen zituen pinturan, adibidez, harriak edo sokak, eta geroago, aluminio-papera. Aldi berean, edertasunaren inguruan gizartean onartutako ideiak baztertzera zen bere asmoa, batere ohikoak ez ziren gaiak eta haiek irudikatzen sorkuntza-moduak aukeratuta. Batez ere bere aurreneko erretratuetan, *Lucien Geominne soldaduaeren erretratu* (*Portrait du soldat Lucien Geominne*) (1950) lanean adibidez, eta *Emakume-gorputzak* (*Corps de dames*) (1950–51) izeneko biluzi-sailean islatzen da helburu hori, baina hedatu egiten da aintzat hartu ohi ez ditugun objektuez egin zituen errepresentazioetan, esaterako, horma zartatuak, ate marruskatuak, lurra eta harriak irudikatzen dituzten horietan.

1962az geroztik eta 1970eko hamarkadan sartuta, Dubuffetek bere corpusik zabalena osatu zuen: *L'Hourloupe* zikloa. Pinturak eta eskulturak dira, eta elkarlotutako gelaxken bilbeak dituzte bereizgarri; haietako asko marra paraleloz beteak, sarritan kolore gorri, urdin eta zurikoak. Ziklo horrek, estiloari dagokionez aldaketa adierazgarri bat erakutsi arren, artistak artearen eta munduaren ikuspegia —berea eta publikoarena— modu zabalagoan birbideratzeko hartua zuen konpromisoari jarraitzen dio leial. *L'Hourloupe* lanekin —erakusketan sail horretako *Nunc Stans* (1965) eta *Bidon l'Esbroufe* (1967) obrak daude ikusgai— Dubuffetek hiztegi bat ezarri zuen, eta harekin sortu eta aztertu zuen fantasiako unibertso hedakor bat, adierazpen bisual bakarrean bateratua, eta gai epistemologikoetan eta fenomenologikoetan sakontzeko aukera ematen ziona. Diseinuen konplexutasunak halako anbiguitasun bat sorraraz dezake ikusmenarentzat, bereziki aldi berean pieza bat baino gehiago behatzen direnean. Ezaugarri enigmatiko horrek itxuraz iraunkorra dena iheskorra izan daitekeela aditzera ematen du eta, uste ez bezala, formak ez duela zertan definitu objektua. Orokorrean, efektu horiek hausnarketa eragiten dute pertzepzioaren eta errealtatearen arteko erlazioaren inguruan; gai horrek berebiziko garrantzia zuen artistarentzat.

Bere bizitzaren azkeneko hamarkadan zehar Dubuffetek adimenaren mekanismoak aztertzen jardun zuen, bereziki kanpoko munduarekiko duten erlazioari dagokionez. Hala, bere arreta funtzio mental horietan oinarritzean, pentsamolde berriak eta askeak inspiratzea lortu nahi zuen. *Oroimenaren antzerkiak* (*Théâtres de mémoire*) (1975–79) sailean, Dubuffetek hiztegi bat ezarri zuen, adierazteko nola integratzen dituen jendeak pertzepzioa, oroitzapenak eta ideiak, gertatzen denari eta inguratzen duenari zentzu bat ematearren. Bere azkeneko bi sailak, *Mirak* (*Mires*) (1983–84) eta *Ez-lekuak* (*Non-lieux*) (1984) —erakusketan *Mira G 132* (*Kowloon*) [*Mira G 132* (*Kowloon*), (1983)] eta *Premisa* (*Donnée*) (1984) obrekin ikusgai, hurrenez hurren—, marren nahas-mahasengatik bereizten dira, non ez den ikonografiarik antzematen. Pintura horiekin, Dubuffetek aztergai izan zuen esperientzia nolakoa izan zitekeen baldin eta adimenak ez balu kanpoko mundua aurrez pentsatutako eta sozialki onartutako kategorien arabera antolatuko, eta ideia hori errealtatearen eta irudimenaren arteko bereizketara ere zabaldu zuen. Artistaren ustez, muga horietatik aske, jendea aukera berri eta mugagabeetara iritsi ahalko luke esperientziaren eta sormenaren arloan.

DIDAKTIKA. MUSIKA-ESPERIENTZIAK

Didaktika proiektuaren barruan Museoak hezkuntza-guneak diseinatu eta jarduerak antolatzen ditu erakusketaren osagarri izateko. Horretarako, tresnak eta baliabideak eskaintzen ditu, bai aretoetan bai online, obrak hobeto ulertzen laguntzeko eta artistei buruzko informazioa zabaltzeko.

Erakusketaren *Ba al zenekien...?* online hezkuntza-sailean, Dubuffeten fazeta bati heltzen zaio, besteak bezain ezaguna ez dena: musika-esperimentazioa. Musika-instrumentu herrikoiek, garaikideek edo antzinakoek, ezohiko modu batean erabiltzean, sortzen dituzten soinuak interesatzen zitzaizkion artistari, eta zenbaitetan areagotu egiten zuen distortsioa soinu-grabazioak manipulaturatuta. 1961ean konposizio haietako asko argitaratu zituen —batzuk bere kide Asger Jornekin eginak— *Musika-esperientziak (Expériences Musicales)* lanean.

Jarduera osagarriak:

Solasaldia (otsailak 23)

Erakusketaren aurkezpen-solasaldia, haren komisario —eta New Yorkeko Solomon R. Guggenheimeko Assistant Curator— David Max Horowitzen eskutik.

Hausnarketa partekatuarak*

Museoko profesionalak eskainitako aurrez aurreko bisitaldiak, erakusketa berriaren edukiei buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituztenak.

- Arte Arduraren ikuspegia (martxoak 16): Marta Blaviak, Museoko Arte-ardura taldeko kideak, ibilbide bat egingo du erakusketako obra nagusietatik.

- Funtsezko kontzeptuak (martxoak 23): Luz Maguregui, Museoko Hezkuntza eta Interpretazioko koordinatzailea, obren ideia nagusiez arituko da bisitariekin.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

Sorkuntza-saioa: *Soinuak baino gehiago* (martxoak 31)

Helduentzako tailerra, Tunipanea (Jonathan García Lana) soinu-artistak gidatua. Bertan, parte-hartzaileek ezohiko soinuak eta melodiak sortuko dituzte eguneroko objektuen bidez, eta Dubuffetek musikarekin nola esperimentatzen zuen ezagutuko dute.

Tailerra eta bisitaldi performatiboak (apirilak 1, 2 eta 3)

Inesa Markava dantzari bielorrusiarrek bere sormen-prozesua eta praktika pedagogikoekiko duen interesa azalduko ditu dantzaren bidez helduentzako tailer batean eta Jean Dubuffeten erakusketarako bisita performatibo batean, biak ala biak Museoan egindako egonaldi baten emaitzaz sortuak.



25 GUGGENHEIM BILBAO

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazioa eta Marketin saila
Tel: 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsak erabiltzeko irudiak
Jean Dubuffet: ospakizun bizia
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsa-irudien online zerbitzua

Museoaren web-orriko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratu zaitezke bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistratu zaitezte eta behar duzuen materiala deskargatu.

Dagoeneko erabiltzaile bazarete, sartu zuen erabiltzaile-izena eta -gakoa, eta sarbide zuzena izango duzue irudien deskargara.

- Ematen diren irudiak *Jean Dubuffet: ospakizun bizia* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabili behar dira. Erakusketa 2022ko otsailaren 25etik abuztuaren 21era bitartean egongo da publikoarentzat zabalik Guggenheim Bilbao Museoa.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gabe. Erreproduzioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, obraren titulua eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri elektronikoen egokien bitartez.
- Irudi orok 1.000 pixeleko berezimenen izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Online argitalpenean fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin izango da deskargatu.
- Irudiak ezin dira transferitu hirugarren bati edo datu-base batera.
- Azaletarako irudien erabilerak kostu bat izan dezake eta alde aurretik obraren jabearen eta copyrightaren titularraren baimena behar izango du.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoa-ren Prentsa Eremuarekin +34 944 359 008 telefonoan edo posta elektronikoko helbide honetan: media@guggenheim-bilbao.eus

Jean Dubuffet

Amatasuna (Maternité), 1944

Materia eta memoria (Matière et mémoire) sailekoa

Litografia

32,4 x 24,1 cm

10etik 9. alea

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, dohaintza, Andrew Powie Fuller and Geraldine Spreckels Fuller Collection 2000.15

© Jean Dubuffet, VEGAP, Bilbo, 2022



Jean Dubuffet

Miss Choléra, 1946ko urtarrila

Olio-pintura, harea, hartxintxarrak eta lastoa mihise gainean

54,6 x 46 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, dohaintza, Katharine Kuh 72.2007

© Jean Dubuffet, VEGAP, Bilbo, 2022



Jean Dubuffet

Lucien Geominne soldaduaeren erretratua (Portrait du soldat Lucien Geominne),

1950eko abendua

Olio-pintura, harea eta hartxintxarrak Masonite gainean

64,8 x 61,6 cm

Solomon R. Guggenheim Foundation, Hannelore B. and Rudolph B. Schulhof Collection,

legatua: Hannelore B. Schulhof 2012.49

© Jean Dubuffet, VEGAP, Bilbo, 2022



Jean Dubuffet

Irudipenen muinoa (La butte aux visions), abuztuak 23, 1952

Olio-pintura Masonite gainean

150 x 194,9 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York 74.2077

© Jean Dubuffet, VEGAP, Bilbo, 2022



Jean Dubuffet

Atea askiarekin (Porte au chiendent), urriak 31, 1957

Olio-pintura mihise gainean, mihise gainean muntatua

189,2 x 146 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York 59.1549

© Jean Dubuffet, VEGAP, Bilbo, 2022



Jean Dubuffet

Astro-substantzia (Substance d'astre), 1959ko abendua

Aluminio-papera eta olio-pintura Masonite gainean

150 x 195 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York 74.2078

© Jean Dubuffet, VEGAP, Bilbo, 2022



Jean Dubuffet

Lurreko bizitza sutua (Vie ardente du sol), 1959ko uztaila

Lurreko antzerkia (Théâtre du sol) sailekoa

Tipografiadun litografia

63,5 x 45,2 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, dohaintza, Morton Lloyd Janklow jaun-
andreak artistaren ohorez 82.2973.8.10

© Jean Dubuffet, VEGAP, Bilbo, 2022



Jean Dubuffet

Pertsonaia, atzealde beltza (Personnage fond noir), urriak 1, 1961

Tinta paper gainean

34,3 x 25,4 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, legatua, Richard S. Zeisler 2008.3.1

© Jean Dubuffet, VEGAP, Bilbo, 2022



Jean Dubuffet

Une egokia (L'instant propice), urtarrilak 2-3, 1962

Olio-pintura mihise gainean

198,8 x 164,1 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York 74.2080

© Jean Dubuffet, VEGAP, Bilbo, 2022



Jean Dubuffet

Nunc Stans, maiatzak 16-ekainak 5, 1965

Binilo-pintura mihise gainean, hiru panel,

161,9 x 274 cm bakoitza; 161,9 x 821,7 cm guztira

Solomon R. Guggenheim Museum, New York 66.1818

© Jean Dubuffet, VEGAP, Bilbo, 2022



Jean Dubuffet

Bidon l'Esbroufe, abenduak 11, 1967

Poliester-erretxina eta binilo-pintura

167 x 76,2 x 40 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, artistaren dohaintza Thomas Messer
jaunaren eta haren emaztearen ohorez. 70.1920

© Jean Dubuffet, VEGAP, Bilbo, 2022



Jean Dubuffet

Parazifra LXIII (Parachiffre LXIII), otsailak 23, 1975

Binilo-pintura paper gainean, mihise gainean muntatua

64,5 x 92,1 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, dohaintza, The American Art Foundation 78.2450

© Jean Dubuffet, VEGAP, Bilbo, 2022



Jean Dubuffet

Tirabira (La Mésentente), martxoak 12, 1978

Akrilikoa paper gainean, mihise gainean muntatua

139,4 x 241,9 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, truke bidez 86.3405

© Jean Dubuffet, VEGAP, Bilbo, 2022



Jean Dubuffet

Mira G 132 (Kowloon) [Mire G 132 (Kowloon)], irailak 18, 1983

Akrilikoa paper gainean, mihise gainean muntatua

201 x 301,6 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York 87.3526

© Jean Dubuffet, VEGAP, Bilbo, 2022



Jean Dubuffet

Premisa (Donnée), apirilak 20, 1984

Akrilikoa paper gainean, mihise gainean muntatua

67 x 99,7 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, truke bidez 86.3410

© Jean Dubuffet, VEGAP, Bilbo, 2022

